

KATASTROAREN ETA ZERBITZUEN ZUZENDARI NAGUSIA

Maite Asensio De La Villa

Rio de Janeiron jaio zen, 1971n

Prestakuntza akademikoa:

Zuzenbideko lizentziaduna eta Ekonomiako diplomaduna, Deustuko Unibertsitatean.

Lan-esperientzia:

Lan ibilbidea 1994an hasi zen, sektore pribatuan, FCC enpresan, hain zuzen ere. Enpresa horretako Administrazio Kontseiluan, giza baliabideen eta hornitzaileen kontroleko atalaren arduraduna zen. 2001eko azaroan, bere plazaz jabetu zen, Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario legez. 2007ra arte, Zergak Kudeatzeko Zuzendariordearen zergen aholkulari tekniko lan egin zuen, eta, ondoren, Ogasun eta Finantza Saileko Zerbitzu Orokorretako Zerbitzuko buru. 2011ko uztailetik, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Katastroaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusia da.

Hizkuntzak

Euskara: Titulazioa: EGA

Ingelesa: Titulazioa: HEko 4. maila